



## Cati Plana eta Dani Violant

Cati Plana eta Dani Violant katalunak dira. Euren soinu diatonikoa jotzen dute. Katalunian, instrumentu horren lehen erreferentziak 1865ekoak dira, eta Kataluniako herri instrumentuetako bat da. 1939tik aurrera gainbehera nabarmena jasan zuen instrumentu horrek, baina trantsizio garaian berriz ere entzuten hasi zen. Gaur egun, Kataluniako herri instrumentu garrantzitsuenetakoa da.



## Pedro Sodupe, 'Gelatxo'

Elgoibarko San Lorentzo auzokoa dugu (1928), aita soinu txikia jotzen zuen, eta Elgetarekin, lehenengotako irakasle eta figura izan zen Euskal Herrian soinu txikian. Pedro bera oso garrantzitsua izan da errepertoriaren transmisioan, bai aitarengandik jasotakoak transmititzen, baita modako piezak transmititzen ere. Jazbana taldearekin ibili izan da urteetan erromeriaz erromeria.



## Juanito Maltzeta

Juanitori (1924-Azkoitia) familiatik datorkio musikarako zaletasuna, aita eta aitona dultzaina joleak baitzituen. Mamen alabarekin urteetan ibili izan da bikote gisa (Mamenek panderoa jotzen zuen). Maltzeta 1940an hasi zen trikitixa jotzen. Besteak beste, Elgeta zenaren ikasle izan zen. Orduz geroztik, zazpi disko grabatu ditu. Jaialdian, alabarakin eta Nerea Ugarte bere ikasle izandakoarekin joko du. Nereak kriskitinak joko ditu.



## Davide eta Andrea

Andrea Russo eta Davide Compte Italia hegoaldeko musikariak dira. Lungo i Villagi taldea sortu zuten bien artean, 1998an. Andreak Italiako soinu diatonikoa jotzen du, eta Davide, berriz, perkusio jolea da. Italiarrek *pizzica tarantata* estiloa landuko dute jaialdian. Tarantularen zitzada sendatzeko erabiltzen omen zen tarantela; musikoterapiako forma zaharrenetakoa omen da.

